

■ Botak eta zapatak

80ko hamarkadako itxura izugarria dute: puntadunak, altuak, eta beherantz zimurtzen direnak. Zapatetan, forma nahiko klasikoak nagusituko dira, andre zaharrek erabiltzen dituzten horietakoak: plataforma txikikoak eta salio zapatak.



■ Bufandak:

Artilea eramateko aipose-nak dira negu honetan. Oso luzeak eta farfaildunak izango dira, baita larruz egindakoak ere.



■ Pontxo eta kapak:

Lepoa gordetzen dute; asko txano eta guzti, emakumearen siluetari omenaldi bat egiteko prest ateratzen dira iraganeko armairuetatik. Artilez, larruz edo ile larruz egindakoak dira, denak ere hotzari aurre egiteko.



■ Erlojuak:

Erloju aukera zabala izango da; guztiak ere hornitu samarrak, harri-bitxiekin nahiz aizunekin, originaltasuna lortze aldera. Handi eta txikiak, tamaina guztietakoak aukeran.



■ Gerrikoak:

Zabala izatea da joera, baina estuak ere badira. Larruzkoak dira asko, eta gerrira gerturatzeko dira. Askotan korapilatuak dira; gainera, apaingarri ugari eransten zaizkie: bordatuak, larruak, metalak... Oihala ere ipin daiteke gerrikoaren azpian, alegia, norberaren gerrikoa pertsonaliza daiteke.



■ Txanoak:

Ezinbesteko elementua dira; hotz handia egiten duen lekuetan, bertakoek beti babesten dute burua, eta zerbaitegatik izango da. Artilezkoak dira nagusi; eta denetarik ikusiko dugu: txapelak, txanoak nahiz kapelak.



■ Krisketak:

Loreez gain, edozein diseinu da zilegi: metalezkoak modernoak; zurezkoak etnikoak; altxor itxurakoak zaharkituak; bestalde, lumak ere agertuko dira.

Kipu

Kirol Denda

Don Tello, 32 - Tel.: 94 625 03 09
GERNIKA (Bizkaia)

IZKO

premama

udazkena automne otoño autumn autumn herbst
2002

Urbietan 23 Donostia tfno:943 421 605 izko@euskalnet.net

Zure aisialdirako gida

- Antzerkia
- Bertsolaritza
- Mahai-jinguruak
- Festak
- Irteerak
- Zinema
- Dantza
- Erakusketak
- Bideoak
- Ikastaroak
- Lehiaketak
- Musika

www.Egunkaria.com/agenda